

OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2011ko martxoaren hiruko gaueko bederatziak eta hamabost minutu direnean, bildu dira, ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa, Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar, Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti, Zinegotzia.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2010EKO ABENDUAREN 16KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2.010eko abenduaren 16ko aktaren berri ematen du eta zinegotziak aho batez onartzen dute. Dena den, Koldo Arzallusek dio, berak erredaktaturiko aktaren inguruan ez daukala ezer esateko, baina, aktari buruz 2 gauza aipatu nahi dituela:

- 1.- San Martin festetako likidazioa egin gabe dago.
- 2.- Dekretuetan titularraren izena jarri beharko litzateke eta ez batzuetan bai eta besteetan ez.

Lehenengo puntuari buruz, Iñaki Labakak erantzuten dio, oraindik festetako likidazioa egin gabe dagoela eta egitea beraien ardura dela.

Bigarren puntuari buruz berriz, Idazkariak erantzuten dio gaia aztertuko duela eta dagozkion kontsultak egingo dituela.

BIGARREN PUNTUA:

DOMUSA ENPRESAK UDALARI EMAN NAHI DION DIRULAGUNTZAREN AZTERKETA.

Alkateak dio, Domusa enpresak Udalari 10.000 € inguruko dirulaguntza eman nahi diola.

Gai honen inguruan, Koldo Arzallus zinegotziak zera dio: berak Aulkia, S.L. enpresari mahai, aulki eta oholaren aurrekontua eskatu diela eta aurrekontuaren zenbatekoa 14.646,50 €-tako delako (BEZ-a barneratu gabe). Eta ondorengo proposamena luzatzen du: Domusak jartzen duen dirua aprobetxatu eta falta dena Udalak jartzea.

Alkateak dio, Udalak 14.000 € gastatzeko konpromisoa ezin duela hartu.

Gai honen inguruan, zinegotzi bakoitzak aurkezturiko proposamenak aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, Domusa enpresak Udalari eman nahi dio dirulaguntzen artean hurrenez hurren ondoren aipatzen diren inbertsioak egiteko eskaera auzuezea erabaki du:

- 1.- Mahaiak, aulkiak eta oholak.
- 2.- Baserrien seinalizazioa.
- 3.- Kultur etxeko arte nagusiko ekipamendua egokitzea.

**HIRUGARREN PUNTUA:
UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETA.**

Alkateak gai honen inguruko laburpen bat egiten du.

Koldo Arzallusek puntu hau hurrengo Plenora atzeratzea proposatzen du.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, aho batez, puntua mahai gainean uztea erabaki dute.

**LAUGARREN PUNTUA:
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**BOSTGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda egiten du, hala nola:

- 1.- Igogailuko obra zuzendaritzako fakturaren onarpena.

2.- Zelatun inguruan bere txabolara iristeko pista beri bat egiteko baimena ematea.

3.- Artzailuz 076, Larraintzarren pertsona bat erroldatzea.

4.- Frontoian egin beharreko eraberritze lanak bermatzeko jarritako abalaren itzulera.

5.- Errekonozitu eta kobratzeke dauden eskubideen baja eta baliogabtzeta onartzea.

6.- Errekonozitu eta kobratzeke dauden eskubideen baja eta baliogabtzeta onartzea.

7.- Letea 035, 01 Irure Hauzkoan pertsona bat erroldatzea.

8.- 2010eko abenduko fakturen onarpena.

9.- Urtarrilaren 27an Borondegiko Areto Nagusia erabiltzeko baimena ematea.

10.- Otsailaren 11an herriko frontoia erabiltzeko baimena ematea.

11.- Segregazio baimena batetan Alkatean delegazioa Alkateordearengan.

12.- Basabe- Barrena baserria eta bere inguruko lursailetik segregatzeko baimena ematea.

13.- Otsailaren 3tik ekainaren 16 arteko ostegunetan Borondegiko Areto Nagusia erabiltzeko baimena ematea.

14.- Landarrain Berri baserria eta bere inguruko lursailak jabetza horizontalean eta bertikalean banatzeko aurkezturiko eskaera onartzea.

15.- Otsailaren 11an dantzalekuan txosna jartzeko baimena ematea.

16.- Idazkari-Kontuhartzailatza hutsik dagoen lanpostua betetzeko arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea.

17.- Otsailaren 9 eta 12an Borondegiko Areto Nagusia erabiltzeko baimena ematea.

18.- Lidia Irigoien Jauregi anderea laboral bezela izendatzea Administrari Laguntzaile mailarekin.

- 19.- Pertsona bat biztanleen erroldan baja ematea iraungipen kausengatik.
- 20.- 2010 urteko 2.sehilabeteko ur hornidura zerbitzuagatik uraren errolda onartzea.
- 21.- 2010 urteko 2.sehilabeteko zabor bilketagatik tasaren errolda onartzea.
- 22.- 2011ko urtarrileko fakturen onarpena.
- 23.- Zabale baserriaren zahar berritze lanen inguruan aurkezturiko dokumentazioa ontzat ematea.
- 24.- Egan etxean ile-apaindegi iharduera legeztatzeke irekitze baimena ematea.
- 25.- Ezama-Enea baserrian esne behien ustiapen iharduera legeztatzeke obra eta iharduera baimenak ematea.
- 26.- Larraulgo Udalarari Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketarekin ados gaudela jakineraztea.
- 27.- Errezilgo bere lurretan txabola bat eraikitzeke baimena ematea zenbait baldintzekin.
- 28.- Erdoizta auzoa 17 Artaunsonon pertsona bat erroldatzea.
- 29.- Errezilgo gunea 008, 2.ezkerran pertsona bat erroldatzea.
- 30.- Letea auzoko 1 partzelako 1 poligonoan Telefonía Automatikorako Oinarrizko Estazio baten iharduera legeztatzeke espedienteari hasiera ematea.
- Galderak eta erreguen puntuaren aurretik, Koldo Albisua zinegotziak aktan ondorengo proposamena idaztea luzatzen du: hurrengo Plenoan 2.001 urtetik 2.009 urte arteko auditoria bat egitea puntu bezela sartzea.

Alkateak erantzuten dio, gaia aztertuko dela.

SEIGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.

- 1.- Alkateak dio, ZEK-aren inguruan beste zenbait herrirekin batera alegazio bat aurkezteko asmoa daukagula

2.- Koldo Albiuak dio, batetik, lehengo Plenoan ahaztu egin zitzaioala auditoriaren puntua hurrengo Plenoan sartzeko proposamena luzatzea.

Eta bestetik, Udalari ondorengo galdera luzatzen dio: landagipuzkoa 32 1.000 biztanle baino gutxiago herrietan Udalak zein subentzio eskatu duen.

Alkateak erantzuten dio, Santa Marina auzoan ur depositua jarri eta banatzeko proiekturako izan dela. Eta jarraian dio, Domusako kurbarako 400.000 €-tako dirulaguntza eman zutela, baina, Etorlur honen inguruan negoziatzen ibili dela, proiektua ez dela aurrera atera eta ondorioz, proiektua bertan behera geratu dela.

Koldo Albiuak erantzuten dio, proiektu honekin diru asko galdu dela eta dirua bazegoela beste proiektu baterako aprobetxatzea.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hamarrak eta berrogeita bost direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.